

▼ Joseba Olalde

Ion Gabella, Gorka Aginagalde eta Iñaki Rodaballo, Sobradun taldeko kideak.



«No hay zuzena ez den komedia

Telebistetako egoera-komedien irudira egituratutako antzezlanak da Sobradunen uztako umore lotsagabea gordetzen den arren, pertsonaiek benetakotasun handiagoa dute.

Iñaki Iazkano

Kazetarion miseriak biluztu zituzten *Herminio y Miguelito* antzezlanarekin. Telebista eta futbola elkartzen diren bidegurutzean alienaturiko artaldeari eskaini zioten 30 millones de gillipollas. *No hay huevos* antzezlanak ere politikoki zuzena omen denaren zaindaria eginiko iseka da. Sobradun taldearen ohiko irreberentzia eta umorez blaitutako komedia ezberdina. Ion Gabellarekin solasean aritu ginen, ho-

netaz eta hartaz, baina batez ere Sobradundarren azken antzezlanaz.

Pertsonaia erreala goak

Bigarren obrarekin, *30 de millones de gillipollas*-ekin, alegia, bertako eta kanpoko antzokiak lehertu zituzten. Uhinaren gailurrean zeudela, baina, zorigaiztoko istripu batek ahanzturan hondartu zituen. Desagerpenaren ertzean izan ziren. Une latz haiek gaitututa, ilusioz jantzita datozkigu euren obra berriarekin Sobradun taldeko kideak. Eduki aldetik *No hay huevos* aurreko antzezlanen ildotik dabilkigun arren, pertsonaiek santonasun handiagoa dutela dirudi. «Aurreko antzezlanetan pertsonaiek komiki kutsu nabarmena zuten. Oraingo honetan, berriz, ezaugarri erreala goak eman nahi izan dizkiegu. Tele-


bistako egoera-komedietako pertsonaien irudira eraiki nahi izan ditugu. Positiboagoak egin, nolabait».

Mauro Entrialgok eta Eloi Beatok idatzi dute gidoia, eta etxebizitza berean bizi diren hiru morroiren artean etengabe sortzen diren ika-miken inguruan ardazkatu dute istorioa. «Pertsonaietako bat pintorea da. Zorraz kitatu ezinik dabilenez gero, estudioa alokatzea beste erremediorik ez du. Hala, azkenean, hirira etorri berri den Opuseko kide kontserbadore horietako bat sartu beharko du etxean. Hala-ber, alokairurik ordaindu ez arren, euren batera bizi da pintorearen lehengusu alferra, bokazioz iraupen luzeko langabetu dena. Pertsonaioek elkartu eta euren arteko gatazka izango da komediaren muina».

Irribarreare xede, salaketari muzin egin gabe

Sobradun taldeak jende gaztea erakartzen du batik bat. Antzerkira joateko ohitura ez duen beste asko ere joan ohi da haien antzezlanekin gozatzera. Sobraduneko kideen helburu nagusia jendearen aurpegietan irribarrearek marraztea izan da beti. Irensten gaituen gizartearen hipokrisia agerian utziz, barre eragitea. «Gure asmo bakarra jendea gurekin dibertitzea da. Hori dugu gogoan, besterik ez. Baten batek esango du egiten duguna ez dela antzerkia. Bost axola zaigu. Edozein antzerki taldek bezainbeste prestatzen ditugu gure obrak, eta ikusle fidelak ditugu. Hori ezin digute ukatu. Atsegin dugu gizartearen sustraituta dagoen hipokrisia, sexu, droga, lan, erlijio, monarkia eta beste hainbat gairen inguruan topa daitekeena, umorearen bitartez salatzea».

esketxak



Mujeres al vapor antzezlaneko sei aktoreak.

«*Mujeres al vapor*» antzezlanaren estreinaldia. Madrilgo Pez Luna antzerki taldeak *Mujeres al vapor* antzezlanak estreinatuko du bihar, gaueko zortzi eta erdietan, Barakaldo antzokian. Nell Dunn idazlearen *Steaming* komediaren egokitapena

da *Mujeres al vapor*. Bertan, irribarreare lagun, langile auzo bateko bainuete turkiarrean euren sentimenduak, desioak, kezak eta ametsak biluzten dituzten sei emakumeren bizitzak kontatzen zaizkigu. Rosana Pastor, Berta Ojea, Ana Saez, Luchi Lopez, Mercedes Castro eta Susi Sanchez dira sei emakume horiek.

DiCapriok ez du Bateman izan nahi. Christian Bale izango da Mary Harron zuzendariaren *American Psycho* filmeko protagonista. Aipatu filma Bret Easton Ellis idazle estatubatuararen izen bereko eleberririk polemikoaren egokitapena da. Estatu Batuetako gizarteari egindako kritikarik basatienetakoa izan zen Bret Easton Ellis-en eleberririk 80ko hamarkadan. Patrick Bateman, eleberririk pertsonaia nagusia, bortxatzea, torturatzea eta erailteza atsegin duen yuppie bat da. Badirudi Leonardo Di Caprio aktore ezagunak ez duela